



Arartekoaren 2022IR-317-20 EBAZPENA, 2022ko martxoaren 9koa. Horren bidez, Arartekoak amaitutzat eman du Arrigorriagako elizako kanpandorrearen eragozpenak salatzen zituen kexa baten harira egin duen jarduketa.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan, Arrigorriagako auzokide batek salatu zuen udalak ez zuela esku hartu Arrigorriagako elizan ezarritako kanpai-hotsen soinudun erloju berriak sortutako eragozpen larriak zuzentzeko.

Zehazki, adierazi zuen, soinudun erloju berria instalatu ondoren, kanpandorrearen soinu maila nabarmenki igo dela.

2. Zarata arazo larri hori konponbide bat emateko asmoz, hainbat erreklamazio aurkeztu duela Arrigorriagako Udalean adierazi du kexagileak, eta orain arte, ez duela udalaren erantzunik jaso ezta neuririk hartu sortutako zaratak murrizteko ere.

3. Kexagileak egindako gogoetak kontuan hartuta, Arartekoak hainbat kudeaketa egin ditu Arrigorriagako Udarekin, salatutako kalteak zuzentzeko Udalak egin duen esku-hartzea ezagutze aldera.

4. Egindako kudeaketei erantzute aldera, Arrigorriagako Udalak honako alderdi hauen berri eman du kexak hizpide duen arazoari dagokionez.

Egindako lehenengo kudeaketen harira, Arrigorriagako Udalak azaldu zuen bitartekotza-lanak egiten saiatzen ari zirela elizako apaiz berriarekin, erlojua martxan egoteak eragiten dituen zarata-mailak murrizteko, eta Udalak horren harira egiten ziren jarduketan berri emango zuela.

Hala ere, hainbat hilabete igaro diren arren, oraindik ez dute berririk jaso kanpaien harira mahaigaineraturiko arazoaren inguruan. Hori dela eta, Arartekoak berriro jo zuen Arrigorriagako Udalera horren harira harturiko azken erabakien berri izateko.

5. Kasu horretan, Arrigorriagako Udalak beste txosten bat bidali zuen eta bertan adierazi zuenez, mahaigaineraturiko arazoaren ebazpena luzatu egin bada ere COVID-19tik eratorritako pandemia dela eta, Udalak kanpai-hotsek eragiten

duten zarata-maila balioztatzeko beharrezkoak diren neurketak egitea erabaki zuen. Txosten horren edukia jarraian transkribatzen da:

"INFORME:

La parroquia Santa María Magdalena de Arrigorriaga se encuentra en el núcleo urbano del municipio, por lo que a lo largo de los años se han construido edificios residenciales en las inmediaciones del mismo, El edificio más cercano a la torre de la campana se construyó a aproximadamente 15 m de distancia.

En cuanto al reloj de la iglesia y las campanas, según los datos aportados por el párroco, actualmente las campanas de únicamente suenan para anunciar "el oficio de funeral de un miembro del pueblo a las 19:00 horas, el toque de medio día llamado Ángelus a las 12:05 horas y las misas del día de la fiesta y domingos, festivos a las 12:00 horas". Además, desde el año 2019 se sumó el toque horario utilizando una de las tres campanas existentes. A pesar de que en un principio el toque horario de daba desde las 9:00h hasta las 22:00h sonando a las horas (con el número de toques correspondiente a la hora) y a las medias (con un solo toque), tras algunas quejas y sugerencias, actualmente el horario es de 10:00h a 21:00h

En estos momentos, con el objetivo de conocer el alcance del ruido generado por las campanas tanto por el toque horario, como por las llamadas a los oficio, se han realizado mediciones durante 3 días en diferentes puntos.

El día 14 de setiembre de 2021, se realizó la primera de las mediciones en la plaza anexa a la iglesia.

Durante las 11:50h y las 12:05h se realizaron un total de 4 mediciones: una medición del ruido ambiente, otra medición del ruido que provenía de las vías del tren aprovechando el momento del paso de un tren de cercanías, a las 12:00 h teniendo en cuenta que es el momento en el que la campana del reloj más veces suena (12 veces) se realizó la medición de la misma. Posteriormente, a las 12:05h en la llamada del Ángelus, se realizó la medición de las campanas.

En este caso, tanto la medición del paso del tren de cercanías, como la campana horaria y las campanas de llamada al Ángelus, sobrepasaron los límites establecidos en la normativa vigente.

El día 15 de setiembre de 2021, se realizaron dos mediciones. En primer lugar, se realizó una medición desde el interior de una de las viviendas más próximas a la torre de la campana, exactamente desde la vivienda sita en Paseo Urgoiti nº30, 6ºcentro.

A las 11:00 h se realizaron dos mediciones en el salón de la vivienda, con las puertas y ventanas cerradas. En primer lugar se realizó una medición para conocer el ruido ambiente del interior de la vivienda y posteriormente, al dar las 11.00h se realizó la medición de la campana del reloj.

En este caso, la medición realizada a la campana del reloj sobrepasa el límite establecido en la normativa vigente.

Posteriormente, se realizó otra medición en el exterior, en otra de las fachadas de la iglesia.

Durante las 11:50h y las 12:05h se realizan un total de 3 mediciones: en primer lugar una medición del ruido ambiente, a las 12:00 h se realizó la medición de la campana del reloj y posteriormente, a las 12:05h en la llamada del Ángelus, se realizó la medición de campanas.

En este caso, tanto la campana horaria como las campanas de llamada al Ángelus, sobrepasaron los límites establecidos en la normativa vigente.

Por último, el día 16 de setiembre de 2021, se realizó una nueva medición desde el interior de la misma vivienda que el día anterior, pero en este caso se realizó la medición en un dormitorio.

A continuación se aportan los datos obtenidos de cada una de las mediciones realizadas:

<i>Día</i>	<i>Hora</i>	<i>Lugar de la Medición</i>	<i>Foco</i>	<i>Medición</i>	<i>Resultado</i>	<i>Índice de Ruido permitido (D 213/2012)</i>
14/09/2021	11:50	Exterior (fachada norte)	Ambiente	Leq 1'	45,2 db(A)	Suelo residencial: 65 dB(A)

14/09/2021	11:55	Exterior (fachada norte)	Tren	LeqT (6s)	70,4 dB(A)	Suelo residencial: 65 dB(A)
14/09/2021	12:00	Exterior (fachada norte)	Reloj iglesia	LeqT (25s)	68,6 dB(A)	Suelo residencial: 65 dB(A)
14/09/2021	12:05	Exterior (fachada norte)	Campanas	LeqT (60s)	73,2 dB(A)	Suelo residencial: 65 dB(A)
15/09/2021	11:00	Interior vivienda más cercana a las campanas	Ambiente	Leq 1´	33 dB(A)	Estancia: 45 dB(A)
15/09/2021	11:00	Interior vivienda más cercana a las campanas	Reloj iglesia	LeqT (22s)	46,5 dB(A)	Estancia: 45 dB(A)
15/09/2021	12:00	Exterior (fachada sur)	Ambiente	Leq 1´	55,4 dB(A)	Suelo residencial: 65 dB(A)
15/09/2021	12:00	Exterior (fachada sur)	Reloj iglesia	LeqT (25s)	72,1 dB(A)	Suelo residencial: 65 dB(A)
15/09/2021	12:05	Exterior (fachada sur)	Campanas	LeqT (60s)	67,0 dB(A)	Suelo residencial: 65 dB(A)
16/09/2021	12:00	Interior vivienda mas cercana a las campanas	Ambiente	Leq 1´	31,9 dB(A)	Dormitorio: 40 dB(A)

16/09/2021	12:00	o) Interior vivienda mas cercana a las campanas s (dormitorio)	Reloj iglesia	LeqT (22s)	39,6 dB(A)	Dormitorio: 40 dB(A)
16/09/2021	12:05	o) Interior vivienda mas cercana a las campanas s (dormitorio)	Campanas	LeqT (60s)	44,7 dB(A)	Dormitorio: 40 dB(A)

Para realizar estas mediciones se han utilizados los medios disponibles en el Ayuntamiento, en este caso se trata de un sonómetro modelo SC-20c de la marca CESVA. Las mediciones se realizaron siguiendo las indicaciones del manual de usuario.

Por otro lado, en lo que a la licencia de actividad clasificada se refiere, examinados los archivos municipales, no consta que la parroquia de Santa María Magdalena de Arrigorriaga (las campanas forman parte de dicha actividad) cuente con el título habilitante para su actividad, lo cual no es de extrañar debido a la actividad en esta iglesia comenzó siglos antes de la entrada en vigor de cualquier ley que regulara las actividades clasificada.

Erreklamazio hau ikusita, kexa eragin duen arazoa azertu ondoren, bai eta gure eskaerari erantzunez Arrigorriako Udalak egindako gogoetak azertu ondoren ere, Arartekoak egokia ikusi du honako gogoeta hauek egitea:



Gogoetak

1. Jasotako udal-informazioaren arabera, egiaztatuta geratu da kanpai-hotsek eragiten duten zarata-mailak indarrean dagoen zaratari buruzko legezko araudian ezarritako mugak gainditzen dituela.

Hortaz, argitu beharra dago botere publikoen zeregina dela bide publikotik datozen zaraten iturriak kontrolatu eta prebenitzea, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legeak zein Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak adierazitako moduan.

2. Kanpai-hotsek, bide publikotik zarata emisioak sortzen dituztenez, zarata eta kutsadura akustikoko araudian aurreikusitako zehaztapenak bete behar dituzte.

Orokorrean, kontuan izan behar da errespetatu egin behar direla eremu urbanizatueta aplikatu beharreko zarataren inguruko kalitate akustikoko helburuak, baita ere etxebizitzetarako eraikinen bizitzeko egokiak diren barneko espazioetakoak, egoitzazko erabileretan, EAEko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskinean aurreikusitakoak.

Nolanahi ere, nabarmendu behar da xedapen horren 44. artikulua ezartzen duela administrazio publikoek aldi baterako baimena eman ahal izango dutela ekitaldi sozialak, politikoak, kulturalak, kirolekoak, erlijiosoak edo antzekoak antolatzean, aurretik adierazitako kalitate helburuen betetzea aldi baterako eteteko.

Hala ere, baimena ematen duen administrazioak, eragin akustikoa baloratu ondoren, neurriak ezarri beharko ditu herritarrei eragin diezazkieketen kalteak ahal bezain beste murrizteko; halaber, etenaldi horrek zenbat iraungo duen eta zerk eragin duen jakinaraziko die pertsona ukituei.

3. Kexa honetan planteatutako arazoari dagokionez, Gaztela eta Leongo JAGak 2002ko otsailaren 1ean emandako epaia aipatu behar da. Bertan, zalantzan jartzen dira Villahoz-eko parrokiako elizek sortutako soinu mailak, izan ere, ezarritako soinu mailak gainditzen dituzte. Auzitegiaren arabera:

“Se trata de una actividad susceptible de causar molestias a la personas y considera competencia controlar el ruido emitido y adoptar las medidas correctoras necesarias, procediendo a justar el nivel sonoro a los límites legales y a la disminución del mismo, adecuándolos a los niveles establecidos legalmente tanto en horario nocturno, como en diurno”.

Hori dela eta, Arrigorriagako Udalak, kalteturiko bizilagunengandik jasotako salaketak direla eta, orain arte egin duen bezala, elizaren kanpandorrean dagoen erlojuak eragiten duen gorabehera akustikoa egiaztatu behar du. Eta gero, egindako probetan jasotako emaitzen arabera, zaratari buruzko araudian ezartzen diren mugak errespetatzen direla bermatzeko beharrezko neurriak hartu behar ditu.

4. Bestalde, azpimarratu beharra dago Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 9. puntuaren I.D Eranskinean ezarritakoaren arabera, sailkatutako jarduera-lizentzien menpe ez dauden gurtzarako lokalek aipaturiko legearen 56. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako aurretiko jakinarazpen-izapidea erabili beharko dute.

Horrez gain, lege horretako 58.3 artikuluan ezartzen denari jarraikiz, sailkatutako jardueren aldez aurreko jakinarazpena behar duten jarduera eta instalazioek gehieneko emisio-mugak bete beharko dituzte. Muga horiek aplikatu beharreko ingurumen-araudian ezartzen dira; kasu honetan, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan.

Kexa honi lotutako espedientean jasotako datuak eta igorritako informazioa ikusita, aurreko gogoetekin bat eginez, honako ondorio hau atera dugu:

Ondorioak

1. Arartekoak amaitutzat ematen du bere esku-hartzea, egiaztatu baitu Arrigorriagako Udalak, auzokideek aurkeztutako salaketei erantzun ostean, behar bezala esku hartu duela eta kanpai-hotsen gehiegizko zarata-maila egiaztatzeko beharrezko neurriak hartu dituela.

2. Edonola ere, Arartekoak adierazi du ingurumen-araudian aurreikusitako eskumenak baliatuz, Arrigorriagako Udalak bere esku-hartzearekin jarraitu behar duela eta, hala badagokio, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean zein Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan aurreikusten diren mugak betetzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartu behar dituela.

3. Era berean, Arartekoak gogorarazi du jardueraren aldez aurreko jakinarazpena izapidetzeko betebeharra bermatu behar duela, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko abenduaren 9ko 3/1998 Legearen 56. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen den bezala.